

BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA 2009

GAIAK

3.Finalaurrekoa – TOLOSA Aurkezlea: Saroi Jauregi
--

8KO NAGUSIA

Uxue Alberdi eta Iker Zubeldia

Zahar-etxe bateko bi adindu zarete. Asteburu oro, hainbat gazte boluntario etortzen dira eguna zuekin igarotzera.

Uxue hasita, hiruna bertso zortziko handian.

Sustrai Colina eta Igor Elortza

Ustekabean, gaur alabak esan dizue aitona-amona izango zaretela udaberrian.

Sustrai hasita, hiruna bertso zortziko handian.

Iñaki Gurrutxaga eta Ainhoa Agirreazaldegia

Bigarren Hezkuntzako hogeit hamar ikasleren irakasleak zarete. Zuen ikasle gehienek aitortu dizuete ikasketak utzi eta lanean hasteko irrikan daudela.

Iñaki hasita, hiruna bertso zortziko handian.

8KO TXIKIA

Iker Zubeldia eta Sustrai Colina

Euskaldun zaharra zara Iker, eta 5. aldiz aurkeztu zara EGA azterketara. Aurreko lau aldietan egokitu zaizun aztertzaile bera duzu aurrean, Sustrai.

Iker hasita, hiruna bertso zortziko txikian.

Ainhoa Agirreazaldegia eta Uxue Alberdi

Zu Ainhoa pilotaria zara, eta partida bat jokatu behar duzun bakoitzean, kandela bat jartzen dio Uxue amonak Ama Birjinari. Azkenaldian, ez duzu partida bakar bat ere irabazten.

Ainhoa hasita, hiruna bertso zortziko txikian.

Igor Elortza eta Iñaki Gurrutxaga

Igor, urteak daramatzazu segalari gisa herri-kirolak sustatzen, eta ez duzu sekula laguntzarik jaso Udaletik. Gaur, belarra mozteko makina hondatu zaiela eta, futbol-zelaiko belarra mozteko eskatu dizu Iñaki Udaleko teknikariak.

Igor hasita, hiruna bertso zortziko txikian.

PUNTUARI ERANTZUNAK

Uxue Alberdi

Txotxongiloak aurki / Tolosan nagusi
Panpinak hartu eta / ipuinak asmatu
Errealitatea / da ipuin garratza

Iker Zubeldia

Elosegi txapelak / munduan ezagun
Finaleko txapela / brodatzen dabilta
Zuk ze neurritakoa / daukazu burua

Sustrai Colina

Hainbeste eurirekin / ez al zara ito
Ez da giro onena / errepiderako
Gustura egoten da / leihotik begira

Igor Elortza

Etxeak eraiki ta / hutsik daude pila
Alokairu xume bat / ezin ordainduta
Teilatua luxua / ez al da bihurtu

Iñaki Gurrutxaga

Gustukoa al duzu / zuk txokolatea
Gorrotxategirena / dugu sonatua
Batzuek jartzen dute / sexuaren pare

Ainhoa Agirreazaldeg

Errege-erreginak / Aquariumean
Batzuk haserre eta / besteak txorutzen
BECeko finalera / etorri ezker

SEI PUNTUKO MOTZA

Iker Zubeldia eta Iñaki Gurrutxaga

Zuen semeak obesitate-arazoak dituela eta, sukaldeko armairuak giltzaz ixteko gomendatu dizue medikuak. Zu Iker prest zaude horretarako; Iñaki ez.

Iker hasita, hiruna bertso sei puntuko motzean.

Uxue Alberdi eta Igor Elortza

Zu Uxue kamiolaria zara, eta Marokotik bueltan zatoz. Igor marokozarrak kamioian ezkutatuta ekartzeko eskatu dizu.

Uxue hasita, hiruna bertso sei puntuko motzean.

Sustrai Colina eta Ainhoa Agirreazaldeg

Zuen gurasoen zilarrezko ezteietan oparitzeko bideo bat prestatzen ari zarete familiako irudiekin. Umetan hil zen zuen anaiaren irudiak sartu egin nahi dituzu zuk, Sustrai; Ainhoak, berriz, ez.

Sustrai hasita, hiruna bertso sei puntuko motzean.

KARTZELA

Putetxeko aparkalekuan duzu autoa. Oraintxe arrankatu duzu.

Hiru bertso nahi duzun doinu eta neurrian.